# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2024ko martxoaren 8a | 37. ZK.

## A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

—11-24/POR-00092. Galdera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaiak, 1999/70 Zuzentarauaren aplikazioari eta betetzeari buruzkoak, Nafarroan duen eraginari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (4. or.).

—11-24/POR-00093. Galdera, azken zortzi urteetan egin diren politika sozialak mantentzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00094. Galdera, Ultzama ibaiaren ibai-ekosistema babesteari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (5. or.).

—11-25/POR-00095. Galdera, Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integralaren garapenari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00108. Galdera, PETerako irisgarritasun-arazoei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00109. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntzarako egiteke dauden izapideei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00110. Galdera, 2023ko aurrekontuetatik 397.649 euroko unibertsitate-bekak itzultzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00111. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketa-hitzarmena sinatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00112. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa amaitzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00113. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa sinatu aurreko bideragarritasun-azterketari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00114. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua udaletako iragarki-oholetan paratzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00115. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua nork bere iragarki-oholean paratu izanaren ziurtagiria udalei eskatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).

—11-24/PES-00116. Galdera, traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
—11-24/PES-00117. Galdera, 2024ko aurrekontuetan aurreikusitako hiriarteko garraiorako inbertsioari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
—11-24/PES-00118. Galdera, udalek eta erabiltzaileek garraioaz eta Nafarroako Gobernuak eginiko inbertsioaz duten iritziari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00119. Galdera, Erromar Soluciones Digitales SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00120. Galdera, MTM 180 Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
—11-24/PES-00121. Galdera, World Magic In the Villages SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
—11-24/PES-00122. Galdera, Brama Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00123. Galdera, Future Factory SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00124. Galdera, Logística Comercial Montelimar SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00125. Galdera, DeLuxe Fortune SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00126. Galdera, Duda Razonable SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
—11-24/PES-00127. Galdera, Grupo Aurum Inversiones SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
—11-24/PES-00128. Galdera, Business City SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (17. or.).
—11-24/PES-00129. Galdera, Proyectos Independientes GEMS II SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (17. or.).
—11-24/PES-00130. Galdera, Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18. or.).
—11-24/PES-00131. Galdera, postu itunduak dituzten zahar-etxeetan arrazakeriagatiko lan-diskriminazio egintzak izateari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (18. or.).
—11-24/PES-00132. Galdera, Larrabide estadioan atletismoko modulu estalia eraikitzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (19. or.).
—11-24/PES-00133. Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Azoka Eremurako (Refena) dituen asmoei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (20. or.).
—11-24/PES-00134. Galdera, lixibiatu-putzuen analisiaren azterketari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (21. or.).
—11-24/PES-00135. Galdera, kriptodiruaren trataera fiskalari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (22. or.).
—11-24/PES-00136. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España, SAren (ECOEMBES) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
—11-24/PES-00137. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España, SAren (ECOEMBES) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenetik toki-entitateentzat eratorritako diruzko ordainei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (24. or.).
—11-24/PES-00138. Galdera, ECOEMBESekiko esparru-hitzarmenari eta gaikako bilketaz arduratzen diren toki-entitateek materialak zuzenean saltzeko aukerari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (25. or.).
—11-24/PES-00139. Galdera, Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan aritzen diren subjektu pasiboei BEZa itzultzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (26. or.).

—11-24/PES-00140. Galdera, produktu fitosanitarioak erabiltzeari eta iraungitakoak edo balioa galdutakoak gaika biltzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (27. or.).

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Erabakia, Legebiltzarraren osoko bilkuretan minutu bateko isiluneak egiteari buruzkoa (28. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

## 11-24/POR-00092. Galdera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaiak, 1999/70 Zuzentarauaren aplikazioari eta betetzeari buruzkoak, Nafarroan duen eraginari buruzkoa

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaiak, 1999/70 Zuzentarauaren aplikazioari eta betetzeari buruzkoak, Nafarroan duen eraginari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Amparo López Antelo andreari, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

1999/70 Zuzentaraua Espainiako estatutan aplikatzeari eta betetzearen bermeari buruz Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaia ikusita, zer eragin du epai horrek Nafarroan?

Iruñean, 2024ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

## 11-24/POR-00093. Galdera, azken zortzi urteetan egin diren politika sozialak mantentzeari buruzkoa

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, azken zortzi urteetan egin diren politika sozialak mantentzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako pobrezia-tasari buruzko azken datuak ikusita: Gobernuak eutsiko al die azken 8 urteotan egindako gizarte-politikei?

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

---

## 11-24/POR-00094. Galdera, Ultzama ibaiaren ibai-ekosistema babesteari buruzkoa

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Ultzama ibaiaren ibai-ekosistema babesteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ultzama ibaiaren inguruneko bizilagunek eta talde ekologistek salatu dute otsailean zehar gutxienez hiru minda-isurketa ilegal egin direla ibaian, eta esaten dutenez etengabeak dira azken 25 urteotan.

Bizilagun eta talde ekologista salatzaileek abeltzaintza-ustiategiei egozten dizkiete minda-isurketa ilegalak, eta esaten dutenez jakinaren gainean jarri dituzte Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldea, Foruzaingoa eta Guardia Zibila, erantzuleak identifikatu eta zehatuko dituztelakoan.

Zenbait udalek –horien artean Atarrabiakoa– mozioak onetsi dituzte, zeinetan Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari eskatzen baitzaio plan bat egin dezala abeltzaintza-ustiategien mindak kontrolatzeko eta horiek egokiro prozesatzeko bide-orri bat ezartzeko, bai eta Ultzama ibaia garbitzeko eta leheneratzeko plan bat ere, ibilgua eta arrain-hazkuntza berreskuratze aldera.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri edo ekimen abiaraziko ditu Ultzama ibaiaren ibai-ekosistema babesteko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-25/POR-00095. Galdera, Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integralaren garapenari buruzkoa

*MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integralaren garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan 9.500 pertsonak baino gehiagok dute ikusmeneko desgaitasuna, ikusmen urritasuna edo itsutasuna; horiek duten intzidentzia handiarekin eta itsutasuna eragin dezaketen askotariko gaixotasunekin kezkaturik, Sozialisten talde parlamentarioan ekimen bat bultzatu genuen, zeina 2022ko maiatzaren 3an aho batez onetsi baitzen Legebiltzar honetan.

Erabaki horretan eskatzen zen abian jartzea Ikusmen Osasunari eta Itsutasunaren Prebentzioari buruzko Plan Integral bat, barne hartuta prebentziora eta arreta goiztiarrera zuzendutako hainbat ekintza, bai eta hobekuntzak ere eguneroko bizitzari hainbeste eragiten dion gaixotasun horren diagnostikoan eta tratamenduan; alderdi zehatz guztiak 9 puntutan jasota zeuden.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu: Zer neurri ezartzen ari dira eta zer ildo jarraituko dira plan integral hori garatzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

# 11-24/PES-00108. Galdera, PETerako irisgarritasun-arazoei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, PETerako irisgarritasun-arazoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Irisgarritasunari dagokionez, zer arazo daude PETean, eta zer asmo du Osasun Departamentuak horiek konpontzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

# 11-24/PES-00109. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntzarako egiteke dauden izapideei buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntzarako egiteke dauden izapideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer harreman izan duzu CANASArekin, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntzan egiteke dauden izapide guztiei heltzeko?

Zehaztu datak, bertaratuak eta lortutako akordioak, baldin eta halakorik badago.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/PES-00110. Galdera, 2023ko aurrekontuetatik 397.649 euroko unibertsitate-bekak itzultzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2023ko aurrekontuetatik 397.649 euroko unibertsitate-bekak itzultzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2023ko aurrekontuetako G10001 G1100 3810 000000 partidan 397.649 euro jasotzen da, guztira, unibertsitate-beketarako. Zer arrazoi egon da unibertsitate-beka horiek itzultzeko? Adierazi zer deialdiri dagozkion eta arrazoi horietako bakoitzak zenbat espedienteri eragiten dion.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00111. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketa-hitzarmena sinatzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketa-hitzarmena sinatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer harreman izan duzu CANASArekin, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko hitzarmena sinatzeari dagokionez?

Zehaztu datak, bertaratuak eta lortutako akordioak, baldin eta halakorik badago.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00112. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa amaitzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa amaitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer kudeaketa, txosten eta ikerlan egin dira, Nafarroako Gobernuko lehendakariak esan ahal izateko Nafarroako ubidearen bigarren fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa amaitzen ari dela?

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00113. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa sinatu aurreko bideragarritasun-azterketari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa sinatu aurreko bideragarritasun-azterketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gobernuak egin al du Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen bideragarritasun-azterlana, hitzarmen ekonomiko-finantzarioa sinatu aurretikoa? Zehaztu data.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

# 11-24/PES-00114. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua udaletako iragarki-oholetan paratzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua udaletako iragarki-oholetan paratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer udalek jaso zuten ubidearen bigarren fasearen proiektua beren iragarki-tauletan argitaratzeko errekerimendua, eta zer datatan? Legez behartuta daude ala ez? Horietako zeintzuek argitaratu zituzten, eta zeintzuek ez? Eta horretarako emandako arrazoiak.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

# 11-24/PES-00115. Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua nork bere iragarki-oholean paratu izanaren ziurtagiria udalei eskatzeari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen proiektua nork bere iragarki-oholean paratu izanaren ziurtagiria udalei eskatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer udali eta noiz eskatu diete Nafarroako Gobernuak edo CANASAk, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen proiektua beren iragarki-oholetan argitaratu izanaren ziurtagiria?

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00116. Galdera, traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer polizia-azterketa egin du Barne Zuzendaritza Nagusiak traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruz? Eskatzen da istilu horiek eta horien ondoriozko jarduketak zerrendatzea, baldin eta halakorik egon bada.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## 11-24/PES-00117. Galdera, 2024ko aurrekontuetan aurreikusitako hiriarteko garraiorako inbertsioari buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, 2024ko aurrekontuetan aurreikusitako hiriarteko garraiorako inbertsioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuari nahikoa iruditzen al zaio 2024ko aurrekontuetan hiriarteko garraiorako egindako inbertsioa?

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00118. Galdera, udalek eta erabiltzaileek garraioaz eta Nafarroako Gobernuak eginiko inbertsioaz duten iritziari buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, udalek eta erabiltzaileek garraioaz eta Nafarroako Gobernuak eginiko inbertsioaz duten iritziari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Positiboa al da udalek eta erabiltzaileek garraio horri eta Nafarroako Gobernuak egindako inbertsioari buruz egiten duten balorazioa?

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00119. Galdera, Erromar Soluciones Digitales SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Erromar Soluciones Digitales SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Erromar Soluciones Digitales S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00120. Galdera, MTM 180 Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, MTM 180 Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak MTM 180 Capital S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00121. Galdera, World Magic In the Villages SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, World Magic In the Villages SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak World Magic In the Village S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00122. Galdera, Brama Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Brama Capital SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Brama Capital SL enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00123. Galdera, Future Factory SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Future Factory SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebil -tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-sean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Future Factory SL enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00124. Galdera, Logística Comercial Montelimar SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Logística Comercial Montelimar SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Logística Comercial Montelimar S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00125. Galdera, DeLuxe Fortune SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, DeLuxe Fortune SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak DeLuxe Fortune S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00126. Galdera, Duda Razonable SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Duda Razonable SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Duda Razonable S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00127. Galdera, Grupo Aurum Inversiones SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Grupo Aurum Inversiones SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Grupo Aurum Inversiones S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00128. Galdera, Business City SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Business City SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Business City S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00129. Galdera, Proyectos Independientes GEMS II SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Proyectos Independientes GEMS II SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Proyectos Independientes GEMS II S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00130. Galdera, Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas SL enpresarekin izandako elkarrizketei edo sinaturiko kontratuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Soluciones de Gestión y Apoyo a Empresas S.L. enpresarekin hitz egin edo kontraturik sinatu al du?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## 11-24/PES-00131. Galdera, postu itunduak dituzten zahar-etxeetan arrazakeriagatiko lan-diskriminazio egintzak izateari buruzkoa

*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, postu itunduak dituzten zahar-etxeetan arrazakeriagatiko lan-diskriminazio egintzak izateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreari, idatziz erantzun dezan:

Arrazoi arrazista islamofoboengatiko lan-diskriminazioko ekintza baten berri izan dugu prentsaren bidez (https://www.eldiario.es/desalambre/mujer-pierde-trabajo-residencianavarra-llevar-panuelo-alterar-paz-mayores_1_10942216.html). Gainera, zahar-egoitza batean (Erruki-etxea) gertatutako egitate bat da, eta Nafarroako Gobernuak hainbat postu itunduta ditu bertan.

Hori guztia dela-eta, jakin nahi dugu zer erantzun eman behar duen Nafarroako Gobernuak egitate horren aurrean, eta zer protokolo dituen arrazoi arrazistengatiko lan-diskriminazioko ekintzen aurrean, postu itunduak dituzten zentroetan.

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

# 11-24/PES-00132. Galdera, Larrabide estadioan atletismoko modulu estalia eraikitzeari buruzkoa

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Larrabide estadioan atletismoko modulu estalia eraikitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2023an, Estatuko Aurrekontu Orokorretan 4 milioi euroko zuzenketa bat jasota zegoen Larrabide estadioan pista estali bat eraikitzeko. Nafarroako Gobernuak, Kultura eta Kirol Departamentuaren bidez, iragarri zuen erabaki zuela funts horiek erabiltzea Larrabide estadioan atletismoko modulu estali bat eraikitzeko, zeina 2023ko azaroan lizitatuko baitzen. Obraren lizitazioa egiteko Departamentuak berak aurreikusitako data baino hiru hilabete gehiago igarota, eta ikusita lizitazio hori ez dela egin:

Aurreikuspenen arabera, noiz lizitatuko da Larrabide estadioan atletismoko modulu estalia eraikitzeko obra?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

# 11-24/PES-00133. Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Azoka Eremurako (Refena) dituen asmoei buruzkoa

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Azoka Eremurako (Refena) dituen asmoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iazko martxoan, NICDO sozietate publikoak Nafarroako Azoka Eremua-Refenak betetzen duen instalazioaren titulartasuna berreskuratu zuen, zeina 2009tik Eventos Zunzarren enpresa nafarrak baitzuen errentamendu-araubidean. NICDOk bere webgunean argitaratzen zuenaren arabera, 2023rako helburua litzateke aztertzea, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirol Departamentuaren eskutik, gune horrek zer helburu izanen duen etorkizunean.

Behin 2023a amaituta, zer plan ditu zehaztuta Nafarroako Gobernuak espazio horretarako?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

# 11-24/PES-00134. Galdera, lixibiatu-putzuen analisiaren azterketari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, lixibiatu-putzuen analisiaren azterketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Lixibiatu-putzuen analisiek honako emaitza hauek eman zituzten: "H410 oso toxikoa uretako organismoentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin” Ecofert Sansoainen, eta "H411 toxikoa uretako organismoentzat, ondorio kaltegarri iraunkorrekin" Desarrollos Medioambientales La Coyan. Hori ikusita:

Departamentuak inolako espedienteak abiatu al zuen berehala?

– Baiezkoan, espediente horren informazio guztia nahi dugu.

– Ezezkoan, zergatik ez zen gehiago ikertu eta espediente bat abiatu?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

# 11-24/PES-00135. Galdera, kriptodiruaren trataera fiskalari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, kriptodiruaren trataera fiskalari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Kriptodirua inbertsioak eta transakzioak egiteko modu berri bihurtu da azken urteetan. Zerga-ondorioei begira, ondasun ez-materiala da, unitateetan edo unitate-zatikietan konputagarria; ez da legezko dirua, baina ordainketak egiteko baliatzen da, beste ondasun baten truke erabil baitaiteke –beste diru birtual batzuk, eskubideak edo ondasunak barne–, baldin eta ondasuna edo eskubidea eskualdatzen duen edo zerbitzua ematen duen pertsonak edo entitateak onartzen badu.

Eduki ekonomikoa duenez, diru birtuala deklaratu egin behar da, ondarearen gaineko zergaren subjektu pasiboa titular den beste edozein ondasunen antzera. Kriptodirua errenta-aitorpenean eta ondarearen gainekoan sartu behar da, baldin eta tributuei buruzko legedian ezarritako gutxienekoa gainditzen bada.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Une honetan, Gobernuak zer tresna dauka kriptodirua dela-eta egin litezkeen iruzurrak kontrolatzeko? Zer egin du Nafarroan zerga-ondorioak dituzten moneta horien mugimendua kontrolatzeko?

2. Gobernuak dauzkan datuen arabera, Nafarroan zenbat pertsona fisikok nahiz juridikok daukate kriptodirua?

3. Guztira, zenbat euro daukate nafar zergadunek kriptodirutan?

4. Gobernuak zer eginen du kriptodiruarekin egindako balizko iruzurrak detektatzeko?

5. Gobernuak ba al dauka kriptodirua dela-eta egin litezkeen iruzurrak kontrolatzeko tresnarik?

6. Gobernuak zer arau-aldaketa bultzatuko du, baldin eta halakorik bultzatzeko asmoa badu, kriptodiruarekin egindako iruzurraren aurkako borroka hobetzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# 11-24/PES-00136. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España, SAren (ECOEMBES) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España, SAren (ECOEMBES) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Iazko abuztuan argitaratu zen Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España SAren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.

Aurreko hitzarmena 2023ko abenduaren 31n iraungi zenez,

1.- Zertan da orain proposatzen den hitzarmenaren negoziazioa?

2.- Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek bilerarik egin al dute zirriborroaren testua hobetzeko?

3.- Sinatu al du Nafarroako Gobernuak esparru-hitzarmen hori?

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# 11-24/PES-00137. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España, SAren (ECOEMBES) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenetik toki-entitateentzat eratorritako diruzko ordainei buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España, SAren (ECOEMBES) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenetik toki-entitateentzat eratorritako diruzko ordainei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Iazko abuztuan argitaratu zen Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España SAren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.

Ontziei buruz azken urteotan gertatu diren lege-aldaketak kontuan hartuta, munta handikoak dira –hala ingurumenari nola ekonomiari eta gizarteari dagokienez– esparru-hitzarmen berriak ekarri dituen ondorioak. Hitzarmen horrek eragin berezia izanen du Nafarroako toki-entitateetan, horiek direlako hondakinen kudeaketaren arduradun nagusiak, baita gaikako bilketa eta birziklapena direla-eta araudi indardunean ezartzen diren helburuak lortzearen arloan ere. Hori dela-eta, hitzarmen berriak ondorio ekonomiko handiak izanen ditu toki-entitateei dagokienez.

Ecoembesek –ontzi-ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboak– Nafarroako Foru Komunitateari planteatutako esparru-hitzarmen berriaren zirriborroan, ekarpen ekonomikoak ez datoz bat gure erkidegoko hondakinen errealitatearekin, ez baitira islatuta ageri munta handiko zenbait gai; esate baterako, ontzien nahiz paperaren eta kartoiaren arloan egiten dituzten kudeaketa-prozesuengatik toki-entitateei egin beharreko "bidezko ekarpen ekonomikoa".

Hori dela eta, galdera hauek aurkeztu dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

1.- Gobernuaren ustez, esparru-hitzarmenaren zirriborroan proposatutakoaren arabera, erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboari atxikitako ontzietatik berreskuratutako materialak direla-eta Ecoembesek Nafarroako toki-entitateei ordainduko dien diruarekin "ekoizleek merkatuan jarritako produktuen ontzien hondakinen kudeaketagatik toki-entitateek edo, kasuan-kasuan- autonomia-erkidegoek egiaz ordaindu beharko dituzten kostu guztiak finantzatuko" al dira, Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuak ezartzen duen moduan?

2.- Gobernuaren ustez, toki-entitateen aldeko finantzaketa-proposamenek 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1 artikuluaren edukia errespetatzen dute?

3.- Gobernuak ba al du asmorik hitzarmenean aldaketaren bat egin dadin proposatzeko, halako moduan non ontzien hondakinen kudeaketagatik aurre egin beharreko kostu erreala ordainduko baitie Ecoembesek toki entitateei?

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# 11-24/PES-00138. Galdera, ECOEMBESekiko esparru-hitzarmenari eta gaikako bilketaz arduratzen diren toki-entitateek materialak zuzenean saltzeko aukerari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, ECOEMBESekiko esparru-hitzarmenari eta gaikako bilketaz arduratzen diren toki-entitateek materialak zuzenean saltzeko aukerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Iazko abuztuan argitaratu zen Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España SAren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena.

Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege-dekretuak jasotzen duenez, toki-entitateek zuzenean kudeatzen ahal dituzte toki-entitateenak diren materialak. Materialak berreskuratzean balio-baliabideak sortzen dira; eta jarduera industrialaren sustapenerako eta, betiere, errege-dekretuak ezartzen duen autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioari begira, interesgarria izan liteke horiek Nafarroan kudeatzea.

Autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioa aipatu ere ez da egiten hitzarmenaren zirriborroan, eta horrek urratu egin litzake Aldaketa Klimatikoari buruzko Foru Legearen helburuak; izan ere, ontzien gaikako bilketatik heldu diren materialak erkidegotik kanpoko birziklatze-plantetara eramaten jarraitzea proposatzen da.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

1.- Nafarroako Gobernuak pentsatu al du kudeaketa ez dadila osorik utzi Ecoembesen eskutan eta toki-entitateek eurek egin ahal izatea, baita haien artean elkartuta, berrartze-printzipioari uko eginez, materialen salmenta, hondakinei buruzko 7/2022 Legean jasotzen diren autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioak sustatuz?

2.- Gobernuaren ustez, aintzat hartu beharko al litzateke aukera hori hitzarmen-esparruan, Ecoembesen ez beste inoren esku utzi beharrean ontzien gaikako bilketan berreskuratutako materialen salmentaren kudeaketa, horrek ahalbidetuko bailuke material horiek berreskuratzearekin lotutako industria-sare produktibo bat sustatzea Nafarroan?

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# 11-24/PES-00139. Galdera, Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan aritzen diren subjektu pasiboei BEZa itzultzeari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan aritzen diren subjektu pasiboei BEZa itzultzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Otsailaren 16an, Gobernuaren ordezkariek bilera egin zuten nekazaritzako kooperatibekin eta sindikatuekin, eta 49 neurri jasotzen dituen dokumentua aurkeztu zieten.

Horien artean da "Lehen sektorearen fiskalitatea" izeneko 9. apartatu hau:

"BEZaren arloan, eta hori estatuko araudiak erregulatzen duenez, lehen sektoreko profesionalei likidezia handiagoa emateko xedez, Ekonomia eta Ogasun Departamentua konprometitzen da ahal bezain azkar egitera nekazarien eta abeltzainen alde geratzen diren aipatu zergaren itzulketak; hain zuzen ere, eskaera egiten denetik 6 asteko epean (orain 6 hilabetekoa da legez ezarritako epea)".

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

1.- Nekazaritzan edo abeltzaintzan jarduten diren zenbat subjektu pasibok eskatu dute, azken 5 ekitaldiotan –2023koa barne–, haien aldekoa izan zitekeen BEZaren itzulketa?

2.- Horrek zenbateko kostua ekarri du, eurotan, ekitaldi horietako bakoitzean?

3.- Ekitaldi bakoitzean zenbatekoa izan da subjektu pasibo bakoitzari itzulitako batezbestekoa?

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

# 11-24/PES-00140. Galdera, produktu fitosanitarioak erabiltzeari eta iraungitakoak edo balioa galdutakoak gaika biltzeari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, produktu fitosanitarioak erabiltzeari eta iraungitakoak edo balioa galdutakoak gaika biltzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduketa-esparrua ezartzen duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege-dekretuak ezartzen du defentsa fitosanitariorako baliabideen Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofiziala sortzea. Horren kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateari dagokio.

Nekazaritzako ustiategien titularrek ustiapen-koadernoa osatu eta mantendu behar dute (nekazaritzaren arloko tratamendu fitosanitarioen erregistroa), euskarri informatikoan edo paperean.

Produktu fitosanitarioak biltegiratu, merkaturatu, inportatu edo esportatu, horien kontrol ofiziala egin eta horiekin egindako entseguak baimentzeko baldintzak ezartzen dituen apirilaren 20ko 285/2021 Errege-dekretua indarrean sartu zenetik, nekazaritzako ustiategiek debeku dute iraungitako edo bertan behera utzitako produktu fitosanitarioak edukitzea.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

1.- 2014tik 2023ra bitarte, nekazaritzako ustiategien zenbat titularrek bete eta igorri diote tratamendu fitosanitarioen erregistroa jasotzen duen ustiapen-koadernoa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zerbitzu eskudunari?

2.- Fitosanitarioak erabili izana deklaratzeko ustiapen-koaderno horietan jasotako zenbat lurzati daude gizakien kontsumorako ur-hartuneetatik gertu?

3.- Zenbat hektarea, non produktu fitosanitarioekin tratatutako haziak erabili baitira, deklaratzen da ereindako azalera gisa ?

4.- Gobernuak ba al du asmorik nekazaritzako ustiategietatik iraungitako edo bertan behera utzitako produktu fitosanitarioen gaikako bilketa- eta kudeaketa-sistemaren bat –doakoa– ezartzeko? Izan ere, araudi indardunak ez du baimentzen deskatalogatutako produktu horiek biltegiratzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Erabakia, Legebiltzarraren osoko bilkuretan minutu bateko isiluneak egiteari buruzkoa

2024ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak minutu bateko isilunea gordeko du bilkuraren hasieran, horren aurretik honako kasu hauetako bat gertatu bada:

– Nafarroan lan-istripu baten ondorioz pertsona bat hiltzea.

– Nafarroan bizi den pertsona bat edo Nafarroan izandako indarkeriagatiko heriotza-gertakari baten biktima bere laneko jardunean edo zerbitzuko jardunean hiltzea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950